

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gema Sistiaga Agirregomezkorta

*Pasaia,
Gipuzkoa
(1953)*

Aurkibidea



Biografia



Hiru senidetatik bigarrena, guraso biak sanjuandarrak zituen. Herriko eskolan ibili ostean, administrari ikasketak egin zituen, Antxoko Urtasun akademian. Familia abertzalekoa, herriko kultur mugimenduan murgildu zen gaztetxotatik: dantza taldean, txistua jotzen... 1972an, 19 urterekin, Donibaneko Ibai Ondo ikastolan hasi zen lanean. Irakasle titulua atera zuen. Gerora Pasai-Lezo ikastola sortuko zuten; bertan jubilatu zen, 42 urteren ostean. Trikitilaria ere bada, pandero jotzailea: Mentxu Alkortarekin bikotea osatu zuen eta plazaz plaza ibili ziren 80ko hamarkadatik aurrera. Trikitixa Elkarteko lehendakari ere izan zen. Hainbat itsas zeharkaldi egin ditu, Albaolarekin, eta lasterketa herrikoietan ere parte hartu izan du.

Zintak

PAS-067

- **Proiektua:** Sanjuandarren Oroimena
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2024-02-20
- **Iraupena:** 96 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

PAS-078

- **Proiektua:** Badiako ikastola txikiak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2025-06-12
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Pasai Donibaneko "Zurruna" kalea I

- **Erref:** PAS-067/002

- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:00:31. **Bukatu:** 00:01:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Garai batean, Pasai Donibanen kale bakarra zegoen eta bertan jaio zen, plaza inguruan. "Zurruna" deitzen zioten kale zati horri. Hemeretzi urtera arte bizi izan zen hor, eta etxea ezin izan zutenez erosi, herriko sarrerara aldatu ziren.</p>

2. Ama, hogeita hamar urterekin ezkondu zen

- **Erref:** PAS-067/004
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:02:10. **Bukatu:** 00:03:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amaren gurasoak Mutrikukoak ziren. Aitarenak, Donibaneko "Borda Andi" baserrikoak. Ama hogeita hamar urterekin ezkondu zen eta jatetxeetan eta neskame bezala lan egiten zuen.

3. Ama, jatetxe ospetsuenetan lanean

- **Erref:** PAS-067/005
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:03:46. **Bukatu:** 00:06:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>"Bordaundi" baserria gaur egun desagertuta dago, baina garai batean garrantzi handikoa izan zen. Aita portuko lantegi batean administraria zen. Amak,etxeko lanak egiten zituen eta jatetxe garrantzitsuetan lan egiten zuen (Panier Fleuri, Camara, Nicolasa...). Igandetan, aitarekin joaten ziren ama lanean zegoen jatetxera eta denak elkarrekin bueltatzen ziren Donibanera oinez.</p>

4. Amak, arraina erosi eta saltzen zuen

- **Erref:** PAS-067/007
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:07:32. **Bukatu:** 00:10:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Amak, arraina ere saltzen zuen. Portuan arraina erosi eta Pasai Antxoko merkatuan saltzen zuen. Eskalapoia erabiltzen zituen. Egurrezkoak ziren. Merkatuko postua alokairuan zuen.

5. Zerbitzariak, kofia eta uniformearekin

- **Erref:** PAS-067/008
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:10:50. **Bukatu:** 00:12:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Sanferminetan, ama Iruñera joaten zen astebetez Las Potxolas jatetxean zerbitzari lanak egitera. Kofiarekin eta uniformeaz jantzita joaten ziren garai batean zerbitzariak.

6. Etxeko zereginak eta administrari ikasketak

- **Erref:** PAS-067/009
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:12:01. **Bukatu:** 00:15:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Amak, bazkarirako mahaiko elementu guztiak jartzen zituen: hainbat edalontzi eta kopa, platerak, ontziak... jatetxean bezala. Etxean, zazpi pertsona bizi ziren. Etxeko zereginak, berak eta amak egiten zituzten arren, aitak beti animatu du Gema ikasteko ere. Hamabost urterekin Urtasun akademian (Pasai Antxo) administrari ikasketak egiten hasi zen.

7. Etxean beti euskaraz egin da

- **Erref:** PAS-067/010
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:15:48. **Bukatu:** 00:17:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Familia oso abertzalea izan du Gemak. Bera gaztea zenean, gaztelania asko entzuten zen kalean. Kuadrillan hogeitak bat izanik, beste birekin bakarrik egiten zuen euskaraz. Etxean, beti euskaraz egin da.

8. Gerra garaian, bi aitonak espetxean

- **Erref:** PAS-067/011
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:17:15. **Bukatu:** 00:21:19

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Bi aitonak espetxean egon ziren gerra garaian. Bat Ondarretan zegoela, amona joan zen bere bila eta gaztelaniaz jakin gabe bertarik atera zuen. Bestearen aztarna alabak lortu zuen Bilbon neskame zegoela.</p>

9. Euskal kulturaren aldeko militantea

- **Erref:** PAS-067/012
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:21:19. **Bukatu:** 00:25:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>Donibaneko batzokiko sortzaileak izan ziren gurasoak. Alderdi politikoak legeztatu zirenean, Gemak ez zuen nahi izan inongo alderdirekin lotu, eta horrek etxean tirabirak sortu zituen. Euskal kulturarengatik egin du lan beti, baina ez politikarekin.</p>

10. San Joango dantza taldea

- **Erref:** PAS-067/014
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:25:49. **Bukatu:** 00:28:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

<p>Hamalau bat urterekin euskal dantza taldean hasi zen. Taldeak ez zuen izenik, "San Juango dantza taldea" deitzen zioten. Mixtoa zen, baina beti mutilen falta zegoen. Irakaslea, Julia Aldasoro zen.</p>

11. Garai bateko gaztetxea

- **Erref:** PAS-067/015
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:28:50. **Bukatu:** 00:30:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Gazteendako lekuak

Laburpena:

<p>Dantza taldeko entseguak, elizako lokal batean egiten zuten, "Aterpea" deitzen ziotena. Lokal hori zen beraien gazte garaiko gaztetxea. Bertan, kultura ekitaldiak antolatzen ziren, jaiak, "guatekeak", kontzertuak... Larunbatero guatekea zegoen eta Antxotik ere jendea joaten zen. Zuzeneko musika izaten zen.</p>

12. Guatekeak igandero Camara jatetxeko ganbaran

- **Erref:** PAS-067/016
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:30:46. **Bukatu:** 00:32:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Gazteendako lekuak

Laburpena:

<p>Hogei bat urterekin, igandero guatekea antolatzen zuten Camara jatetxearen ganbaran. Goizean, pantxoak eta arrainak harrapatzera ateratzen ziren, Pontika txaluparekin, eta gero guatekean horiek ateratzen zituzten, jatetxean sobratutako postre eta pasteekin batera.</p>

13. Igerian ikasten plazako aldapan

- **Erref:** PAS-067/017
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:32:31. **Bukatu:** 00:34:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

<p>Donibaneko plazan, uretara jaisteko aldapan ikasi zuen igerian. Ikasten zebilela, flotagailuak ihes egin zion eta uretatik atera behar izan zuten. Pare bat urtez egon zen igeri egin gabe, beldurragatik, baina kuadrillako guztiek ikasi zutenez, azkenean berak ere ikasi zuen.</p>

14. Garai bateko bainujantziak

- **Erref:** PAS-067/018
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:34:24. **Bukatu:** 00:36:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Bolantedun bainujantzi hori bat ekarri zion behin aitona eta horrekin ibiltzen zen egunero. Etxean, amak eta Gemak bakarrik zekiten igerian. Amak, bainujantziaren gaintetik gona jantzen zuen igeri egiteko.

15. Amaren aitona galernaren ondorioz hilda

- **Erref:** PAS-067/019
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:36:50. **Bukatu:** 00:38:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak

Laburpena:

Etxekoak ez dira arrantzaleak izan eta ez da egon arantzara joateko afizioa. Gema Albaolarekin itsasoratu zenean, amak beldur handia zuten, bi aitonak Mutrikun izandako galerna batean hil zirelako.

16. Hizkuntza-errepresioa frankismoan

- **Erref:** PAS-067/021
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:38:51. **Bukatu:** 00:42:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Herriko ikastetxean ikasi zuen. Etxeko zapatilak eramaten zituzten eskolara. Eskolan gaztelaniaz ikasten zuten eta ikasleen artean, kalean ere, horrela egiten zuten. Hizkuntza-errepresioa. Familia gehienetan denek zekiten euskaraz, baina kalean ez zen egiten.

17. Donibaneko "Zurruna" kaleko giroa

- **Erref:** PAS-067/023
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:42:14. **Bukatu:** 00:44:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>"Zurruna" kalean jolasten zuten egunero, 20.30-21.00ak arte. Giro handia egoten zen bertan: antzerkia, zezenetan, sokasaltoan... Familia handi bat osatzen zuten bizilagun guztiek. Ia ez zuten zaborrik sortzen, dena berrerabili egiten zelako. Organikoa, txerriarentzat izaten zen.</p>

18. Pasai Donibaneko "Zurruna" kalea II

- **Erref:** PAS-067/024
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:44:19. **Bukatu:** 00:45:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

<p>Baserritarrekin harreman zuzena zuten. "Zurruna" kaletik gora Jaizkibelera igotzen zen eta handik pasatzen ziren baserritarrak eta baita polizia ere.</p>

19. Donibaneko lehenengo telebistak

- **Erref:** PAS-067/025
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:45:25. **Bukatu:** 00:47:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Umea zenean, garbitokira joaten zen amarekin, baina gero garbigailuak sartu zituzten etxeetan. Lehenengo, bere lagun Maria Kristinaren etxean izan zen eta haurrak begira egoten ziren. Arropa garbitzen zuen baina ez zion ura kentzen. Telebista ikustera ere, Maria Kristinaren etxera joaten zen. Donibaneko lehenengo telebistan, Meipi auzoko taberna batean ipini zuten.

20. Zinema, arrantzaleen kofradian

- **Erref:** PAS-067/026
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:47:30. **Bukatu:** 00:49:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Donibaneko zinema, arrantzaleen kofradia antolatzen zen. Bost pezetarekin filma ikusten zuten eta goxokiak jaten zituzten. Umetako eta gaztetako oroitzapen onak ditu, nahiz eta etxean senide batzuk gaixorik egon.</p>

21. Txistua jotzen ikasi zuen Itsasmendi elkartean

- **Erref:** PAS-067/027
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:49:01. **Bukatu:** 00:51:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Itsasmendi elkartea sortu zen Gemak 15-16 urte zituenean. Ikastaroak antolatzen ziren eta bertan txistua jotzen ikasi zuen. Pieza batzuk ikasi eta jaietan diana jotzen ibiltzen ziren. Itsasmendiko 50. urteurrenean, musikari guztiak bildu ziren.

22. Donibaneko lehenengo ikastola

- **Erref:** PAS-067/029
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:51:58. **Bukatu:** 00:53:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>60ko hamarkadan, ikastolaren mugimendua hasi zen Donibanen, Bonantza elizaren lokal batean. Rosarito Folgado izan zen lehenengo irakaslea. Gemaren anaia txikia ez zuten bertan matrikulatu, oraindik ezjakintasun handia zegoelako.</p>

23. Donibaneko ikastolako lehenengo irakasleetako bat

- **Erref:** PAS-067/030
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:53:44. **Bukatu:** 00:55:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Ikastolaren lehenengo lokala ireki eta gero, "Aterpea" lokalean klaseak ematen hasi zen Lurdes Sistiaga irakaslea. Itsasmendi elkarteko kideek ere, proiektuan lagundu nahi zuten, lokal bat erosi zuten eta goiko aldean ikastolako gela berriak sortu zituzten eta bertan hasi zen Gema lanean irakasle bezala, 1972-1973 ikasturtean. 20 ikasle zituen, baina hurrengo urtean 40 izan ziren.</p>

24. Oreretako ikastolan, irakasle izateko formatzen

- **Erref:** PAS-067/031
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:55:05. **Bukatu:** 00:57:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

<p>Donibaneko ikastolan irakasle bezala hasi zenean, Gemak ez zuen titulurik. Ez zioten ordaintzen, baina mesedez formatzeko eskatu zioten eta bi hilabetez egon zen Oreretako ikastolan ikasten. Kaputxinoek komenturak gela batzuk utzi zituen ikastoletako irakasleak formatzeko.</p>

25. Elbira Zipitriaren metodologia

- **Erref:** PAS-067/032
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:57:13. **Bukatu:** 00:59:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza

Laburpena:

Elbira Zipitriaren metodologia ikasi zuten lehenengo ikastolako irakasleek.

26. Gau eskolak eta euskararen alfabetizazioa

- **Erref:** PAS-067/033
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:59:19. **Bukatu:** 01:02:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

<p>Ikastolan klaseak emateko materialak, irakasleek prestatzen zituzten eta beraien artean partekatzen zituzten. Ikastolan irakasle izateko eskatu zioten euskaraz zekielako, baina Gema ez zegoen alfabetatuta eta Oñatibiaren liburuxkak erabili zituen horretarako. Pixkanaka-pixkanaka joan zen euskara batuan alfabetatzen, gero klaseak eman ahal izateko.</p>

27. Ikuskatzailearen aurrean, tituludun irakasleak bakarrik

- **Erref:** PAS-067/034
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 01:02:21. **Bukatu:** 01:05:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

<p>Gau eskolan euskara batuan alfabetatzen zenbiltzanak, ikastolan irakasle-laguntzaile bezala hasi ziren lanean. Ezin ziren irakasleak izan, ez zutelako titulorik. Ikuskatzailea joaten zenean, tituludun irakasleak ateratzen ziren harekin hitz egitera. Behin, ikuskatzaile batekin gertatu zitzaiona kontatzen du.</p>

28. Ikastolan, guardia zibilarekin arazoak

- **Erref:** PAS-067/035
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 01:05:08. **Bukatu:** 01:07:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

<p>Herriko festa batzuetan, ikastolak errepresioaren aurkako karroza bat atera zuen eta guardia zibila joan zen gero ikastolara, ateratako haurrak eta irakasleak identifikatzera.</p>

29. Rosarito Folgado, Donibaneko ikastolako lehenengo irakaslea

- **Erref:** PAS-067/036
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 01:07:36. **Bukatu:** 01:09:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Ikastolako lehenengo irakaslea Rosarito Folgado izan zen, karabinero edo mugazain baten alaba. Lourdes Sistiaga eta Miren Etxezarreta izan ziren hurrengo irakasleak.

30. Pasaia-Lezoko ikastolaren sorrera

- **Erref:** PAS-067/037
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:09:54. **Bukatu:** 01:12:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Pasai Donibanen, Antxon, San Pedron eta Trintxerpen bazeuden ikastolako gelak, eta momentu batean, Lezoko gelekin batera, ikastola sortu zuten. Herri-ekimen bat bihurtu zen eta herriak asko inplikatu ziren ikastolaren sorreran eta antolakuntzan. Ikastolako ikasleen gurasoak asko inplikatzeko ziren, adibidez irteeretan, tailerretan...</p>

31. Pasai Antxo eta San Pedroko ikastoletako lehenengo irakasleak

- **Erref:** PAS-067/038
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 01:12:34. **Bukatu:** 01:14:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Pasai Antxoko ikastolako lehenengo irakasleak, Kontxita Beitia eta Nekane Azurmendi izan ziren. Lehenengo etxebizitzetan ematen zituzten klaseak. Kontxita Beitia, Elbira Zipitriaren metodologia erabiltzen zuen. Pasai San Pedron, Pilartxo Arratibel izan zen ikastolaren aitzindaria eta lehenengo irakaslea. Pasaiko ikastolak sortuta, bilerak egin zituzten denen artean eta ikastola amankomun bat sortzea erabaki zuten, Lezorekin batera.</p>

32. Donibaneko ikastolako lokal ezberdinak

- **Erref:** PAS-067/040
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 01:15:54. **Bukatu:** 01:18:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Donibaneko hasierako ikastolan, hainbat tokitan eman ditu klaseak

Gemak: Itsasmendiko lokalean, elizako gela batzuetan eta Lurdes Txiki kaleko bi sotoetan. Haur-hezkuntzan zortzi urte eman zituen, baina ikasleen hastapena ikusi nahi zuenez, lizeo berrira pasatu zen irakastera. Oso etapa polita dela kontatzen du.

33. Pasaia-Lezo lizeoaren kokapena

- **Erref:** PAS-067/041
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 01:18:31. **Bukatu:** 01:22:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Pasaia-Lezo Lizeoaren proiektua gauzatzeko eta eraikina egiteko, espazio asko behar zen eta Donibaneko Gaztelutxo ingurua proposatu zen horretarako. Aurrekontu asko behar izan zuten ikastola eraikitzeko eta festetan eta bestelakoetan, irakasleak, gurasoak eta laguntzaileak, tabernak jartzen zituzten, ogitartekoak saldu...

34. Bergarako UNED-en ikastolako irakasle titulua ateratzen I

- **Erref:** PAS-067/043
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 01:22:36. **Bukatu:** 01:24:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Pasaia-Lezoko lizeoa sortu zenean, maila bakoitzeko gela bat zegoen (gaur egun, 4 gela daude). Irakasle asko zeuden titulu gabe eta orduan, ikasketak burutzeko proiektu bat atera zen. Eskoriatzako irakasle-eskolan zegoen Fernando Etxeberria izan zen proiektuaren sortzailea, eta helburua, ikastolako irakasleek titulua lortzeko magisteritzako ikasketa batzuk sortzea izan zen. Klaseak, Bergarako UNED-en jasotzen zituzten.

35. Bergarako UNED-en ikastolako irakasle titulua ateratzen II

- **Erref:** PAS-067/044
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 01:24:42. **Bukatu:** 01:27:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Ikastolako irakasleentzat magisteritzako titulua ateratzeko, Gemak 25 urtetik gorakoentzako unibertsitaterako sarrerako azterketa egin behar izan

zuen. Magisteritzako klaseak asteburuan eta udako oporretan izaten ziren, Bergarako UNED-en.</p>

36. Bergarako UNED-en ikastolako irakasle titulua ateratzen III

- **Erref:** PAS-067/045
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:27:32. **Bukatu:** 01:30:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

<p>Ikastolako irakasle-titulua ateratzen ibili zenean, Gema ama zen. Hala ere, oso motibatuta zeuden eta gai izan ziren aurrera eramateko. Bergaran, Maria Lagundiaren komentuan lo egiten zuten eta elkarte gastronomikoetan afaria prestatzen zieten. Hiru urtean atera zuten titulua.</p>

37. Pasaia-Lezo lizeoko lehenengo irakasleak

- **Erref:** PAS-067/046
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 01:30:28. **Bukatu:** 01:33:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Pasaia-Lezo lizeoko lehenengo irakasle guztiak gazteak ziren eta gaur egun erretiratuak daude: Emi Mujika, Agustin Migeltorena, Jon Alvarez, Xabier Portugal, Gema Sistiaga... Markos Sistiaga idazkaritzan zegoen.</p>

38. Euskaraz zekielako eskatu zioten ikastolan lan egitea

- **Erref:** PAS-078/003
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:00:55. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

<p>1972-1973 ikasturtean hasi zen Donibaneko ikastolan lanean. Bere erreferentea Lourdes Sistiaga izan zen. Berak fitxatu zuen ikastolarako, gau eskoletan euskaraz alfabetatzen zegoenean. Gemak ez zuen irakasle titulurik eta Oreretako ikastolan bi hilabetez egon zen irakasle lanetarako pixka bat formatzen.</p>

39. Donibaneko ikastolaren kokapen ezberdinak

- **Erref:** PAS-078/004

- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:05:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Donibaneko ikastola, Bonantza eliza ondoan sortu ziren. Ikastolako gelak herri guztitik zeuden sakabanatuta: Aterpean, Itsasmendi elkartearen atzeko etxeetan, Lourdes Txiki kalean, Pisbe lantegiko jangelan eta aazkenik lizeoan.

40. Ikastolako ikuskaritzakoen bisitak

- **Erref:** PAS-078/006
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:05:47. **Bukatu:** 00:09:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Irakasle asko titulu gabe zeuden eta beste pertsona batzuenak erabiltzen zituztenak. Maria Luisa Almandozek adibidez, bere titulua utzita zeukan ikastolari. Gertakari bat kontatzen du. Irakasleek asko eman zuten.

41. Gaztelutxo elkartearen sorrera

- **Erref:** PAS-078/008
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:09:06. **Bukatu:** 00:10:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Gaztelutxo elkartearen, gurasoak ez ezik, lizeoaren proiektuaren aldeko jendeak ere hartu zuen parte. Joxe Mari Legarrak hartu zuen Pasaian alkatetza, proiektu hau aurrera eramateko. Irakasleen inplikazioa ere bazegoen, baina gehien bat gurasoen aldetik.

42. Lizeoa Donibanen eraikitzearen arrazoia

- **Erref:** PAS-078/009
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:10:45. **Bukatu:** 00:13:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Donibanen bakarrik zegoen lizeoa egiteko lurra. Lekua zoragarria izan arren, autobus asko behar ziren ikasleak bertara joateko eta horrek kuotak handitu zituen ere. Gurasoak eta bazkideak ziren lizeoa ordaindu zutenak.

43. Badiako herrien arteko ikastolako irakasle-sarea

- **Erref:** PAS-078/011
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:13:53. **Bukatu:** 00:16:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Ikasleak lizeora joan aurretik, barruti ezberdinetako ikasleak elkartzen hasi ziren. Irakasleak ere elkartu egiten ziren, denek eduki eta metodologia berdintsuak emateko. Edozein herritan klaseak emateko prest egon behar zuten.

44. Lizeora joan aurretik, Beraunen

- **Erref:** PAS-078/012
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:16:31. **Bukatu:** 00:18:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Lizeora joan aurretik, haurrek Beraunen ikasi zuten. Han, herri batzuk elkartuta zeuden dagoeneko. Irakasle bakoitzak talde berdinarekin 2-3 ikasturte egiten zituen.

45. Pasaiaiko txabolsotoetan, euskaraz

- **Erref:** PAS-078/014
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:18:50. **Bukatu:** 00:21:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Lizeoarentzat dirua lortzeko diru-iturri bat taberna zen. Barran lanean zeudenek euskara erabiltzen zuten beti eta tentsio momentu bat edo beste bizi izan zuten. Gaur egungo txosnen estilokoak ziren txabolsotoak.

46. Tira-birak guardia zibilarekin

- **Erref:** PAS-078/015
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:21:26. **Bukatu:** 00:24:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Eguberrietan eta herriko festetan, herriko ekintzetan parte hartzen zuten ikastolatik. Behin, errepresioa isladatzen zuen karroza bat egin zuten eta gaurdia zibila joan zitzaien azalpen eske. Haurrak koartelera eraman nahi zituzten baina irakasleek ez zieten utzi.

47. Ikastolaren inguruan bolondres ugari

- **Erref:** PAS-078/016
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:24:06. **Bukatu:** 00:25:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Ikastolako mantenu-lanak (garbiketak, arotzak, iturginak...) irakasleek eta herri jendeak egiten zituzten ezer kobratu gabe. Bere osabak ikasle txikientzat egindako mahai eta aulki txikiak gogoratzen ditu.

48. Ikastolaren alde lan egin zuen jendea

- **Erref:** PAS-078/017
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:25:50. **Bukatu:** 00:27:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Ikastolaren traba nagusia ekonomikoa izan zen, nahiz eta traba politikoa erre bazegoen. Baina ikastolaren alde lan egin zuen jende asko egon zen.

49. Legeaz zekien pertsonak behar ziren

- **Erref:** PAS-078/019
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:27:54. **Bukatu:** 00:28:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Simon Garinek asko lagundu zuen ikastolaren proiektuan ere. Legegizona zen eta horrelako jendea behar zuten ere.

50. Zotzak eta garbantzua matematika irakasteko

- **Erref:** PAS-078/021
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:29:14. **Bukatu:** 00:31:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikasle txikienekin edozein material erabiltzen zuten ikasteko (zotzak edo garbantzak matematiketarako, adibidez). Imanol Urbietaren abestiez asko baliatu izan ziren.

51. Ikastolan lan egitea oso aberasgarria izan da

- **Erref:** PAS-078/022
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:31:08. **Bukatu:** 00:34:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Ikastolan lan egitea oso aberasgarria izan da Gemarentzat. Momentu onak eta txarrak pasa dituzte, baina momentu onean erretiratu dela uste du. Egindako lan guztia alferrikakoa ez dela izan uste du.

52. Mentxu Alkortaren dantza-eskolan

- **Erref:** PAS-078/024
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:35:15. **Bukatu:** 00:37:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Mentxu Alkorta dantzari klasikoaz hitz egiten du. Ikastolan ezagutu zuen, batzuetan dinamizatzaile lanak egiten zituelako. Mentxurekin dantza eskolak jaso zituen.

53. Mentxu Alkorta eta Gema Sistiaga trikitilariak

- **Erref:** PAS-078/025
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:37:30. **Bukatu:** 00:40:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Mentxu Alkortak trikitia jotzen ikasi zuen eta Gemak panderoa. Kostaldean trikitilari bikoterik ez zegoela eta, elkartu egin ziren Mentxu eta Gema. Nola hasi ziren kontaktzen du.

54. Emakumezkoen lehenengo trikitilari bikotea

- **Erref:** PAS-078/026

- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:40:57. **Bukatu:** 00:42:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Trikitilari bikote bezala, Gema eta Mentxu izan ziren lehendabiziko emakumezkoak.

55. Trikitixa elkarteak

- **Erref:** PAS-078/027
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:42:32. **Bukatu:** 00:46:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Trikitilari eta panderoaren inguruko ikerketa bat prestatu nahi izan zuten baina ez zuten gobernuaren laguntzarik izan. 1986an trikitilarien elkarteari buruz jakin zuen. Joseba Tapia eta Iger Goenagakin elkartu zen bertan, eta ikerketa aldetik zerbait egin behar zutela pentsatu zuten.

56. Arraguan lehenengo kontzertua

- **Erref:** PAS-078/030
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:47:09. **Bukatu:** 00:49:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Mentxu Alkortak eta Gemak, Arraguan (Oiartzun) jo zuten lehenengo aldiz kontratupean. Aurretik Ergoieneko jaietan aritu ziren haien kabuz jotzen eta Arraguarako deitu zieten. 1986a zen.

57. Katak hartu eta moldatu

- **Erref:** PAS-078/031
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:49:26. **Bukatu:** 00:50:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Plazan jotzeko errepertorio bila joan ziren Urruñara, Atxaflabaita jatetxera. Nahiz eta Mentxu Alkortak pieza txikiak sortzen zituen bere lanean, plazan jotzeko dagoeneko zeuden kantak hartu eta moldatu egiten zituzten, batez ere letrak.

58. Plazan jotzean, disfrutatzea zen beraien helburua

- **Erref:** PAS-078/032
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:50:55. **Bukatu:** 00:53:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Lanbideak » Artistak

Laburpena:

Mentxuk eta Gemak bazekiten zer nahi zuten jo, noiz eta nola. Disfrutatzea zen beraien helburua. "Faborez 6" diska grabatu zuten, Trikitixa Elkartearen laguntzaz.

59. Andeetan trikitia eta panderoa jotzen

- **Erref:** PAS-078/033
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:53:38. **Bukatu:** 00:55:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Leku askotan jo zuten, baita Andeetan ere, 3000 metrotara. Albaola elkartarekin ere egin dituen bidaietan, musika eramaten saiatu izan da beti.

60. Albaolako kidea

- **Erref:** PAS-078/034
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:55:48. **Bukatu:** 00:57:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Albaola elkarteko kide egin zen 2000. urtean.

61. Behobia hamabi aldiz egin du

- **Erref:** PAS-078/035
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:57:05. **Bukatu:** 00:59:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

- Aisia » Kirola

Laburpena:

Itsasmendi elkartearekin asko joan da mendira. Kirolarekiko zaletasun handia dauka. Musika, dantza eta kirola dira bere zaletasunak. Behobiako lasterketan 12 aldiz hartu parte, bat Caracasen zegoela.

62. Trikitxa elkartearekin festibal eta topaketetan

- **Erref:** PAS-078/039
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 01:01:40. **Bukatu:** 01:04:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak

Laburpena:

Manuel Dorronsororekin ikasi zuen panderoa jotzen. Trikitixa elkartearekin leku askotan egon da topaketetan: Bartzelonan, Portugalen, Italian... beste trikitilari batzuekin (Joseba Tapia, Alaitz eta Maider...)

63. Emakume tritilariak eta genero berdintasuna

- **Erref:** PAS-078/040
- **Iraupena:** 0:04:41. **Hasi:** 01:04:31. **Bukatu:** 01:09:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Garai bateko emakume trikitilariak ez zuten batere erreza izan. Ez zegoen ondo ikusita. Errespetu faltak jasan izan dituzte, baina adi bat zutenez ez zitzaien inporta. Hala ere, imaginatzen du emakume trikitilari gazteagoek (Alaitz eta Maider, Maixa eta Ixar...) gaizkiago pasatu izango zutela.

64. Trikitiaren mundua maskulinoa da

- **Erref:** PAS-078/041
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 01:09:12. **Bukatu:** 01:11:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Trikitixa elkarteko lehendakari zeneko bazkari bat gogoratzen du, non bera zen emakume bakarra. Trikitiaren mundua maskulinoa eta askotan matxista da.

65. Emakume trikitilarien historia jasotzen

- **Erref:** PAS-078/042

- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 01:11:51. **Bukatu:** 01:13:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Trikitixa elkartean, emakume trikitilarien historia jasotzea da helburuetako bat. Elkarreak ateratzen dituen liburuak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com